AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

485

1828/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Nerea Larrañaga Garaikoetxea andrea Mendaroko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzea xedatzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak martxoaren 7an emandako 97/2001 Ebazpenaren bitartez, Nerea Larrañaga Garaikoetxea andrea Mendaroko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek ondokoa

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Nerea Larrañaga Garaikoetxea andrea Mendaroko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Giza Baliabideen Zuzendariordetzari eta Mendaroko Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.